a) SARTZEKO BALDINTZAK - Adinez nagusiak izatea, edo legez emantzipatuak. - Gizarte bazterkeria egoeran edo arriskuan egotea (nahiz baloraziorik ez izan) eta bizileku egokirik ez izatea. - Baliabide ekonomiko eta/edo laguntza sozio-familiar nahikoa ez izatea alojamendu bat izateko. - Zentroko langileak higiene pertsonalari eta zentroaren higieneari dagokionez emandako jarraibideak betetzeko gai izatea eta horretarako konpromisoa hartzea.	a) REQUISITOS DE ACCESO - Ser mayores de edad o estar legalmente emancipados. - Encontrarse en situación o riesgo de exclusión social (aun sin contar con valoración) y carecer de alojamiento adecuado. - Insuficiencia de recursos económicos y/o apoyo socio-familiar para acceder a un alojamiento. - Comprometerse y ser capaz de seguir las instrucciones recibidas por parte del personal del centro en materia de higiene personal e higiene del centro.

ESKUc87abf7c-8b1e-4856-b407-befde78fccaa

- Ospitaleratzea eskatzen duen gaixotasun fisiko edo psikikorik ez izatea, edo zerbitzuaren berezko zuzkiduren irismenetik eta aukeretatik kanpo dagoen osasun-laguntza espezializatu eta/edo iraunkorrik behar ez izatea. - Jokabide-nahasterik ez izatea eta zerbitzuaren funtzionamendua edo zerbitzuko bizikidetza normala larriki nahas dezakeen edota beretzat, beste erabiltzaile batzuentzat edo profesionalentzat arriskutsua izan daitekeen portaerarik ez agertzea. - Gaixotasun infekzioso eta kutsakor bat eta/edo gaixotasun mentalen bat izanez gero, dagokion tratamendua hartzea, eta zentroko zuzkiduren irismenetik eta aukeretatik kanpo dagoen osasun-laguntza behar ez izatea. - Herrian erroldatutakoek —edo errolda izan gabe ere, bertan errotutakoek— izango dute lehentasuna; oinarrizko Gizarte Zerbitzuek eta herriko gizarte entitateek identifikatu eta proposatutako dituzte; edo/eta, horrela izan gabe ere, egoera hauskor batean herrian aurkitzen direnak (adinekoa, emakumea...).	- No padecer enfermedad física o psíquica que requiera hospitalización, o no precisar de asistencia sanitaria especializada y/o permanente fuera del alcance y posibilidades de las dotaciones propias del servicio. - No padecer trastornos de conducta ni comportamientos que perturben gravemente el funcionamiento del servicio o la normal convivencia en el mismo, o que supongan un riesgo para sí mismo, para otras personas o para los profesionales. - En caso de padecer una enfermedad infecciosa y contagiosa y/o enfermedad mental, someterse al tratamiento correspondiente y no precisar de asistencia sanitaria fuera del alcance y posibilidades de las dotaciones del centro. - Tendrán prioridad las personas empadronadas en Zarautz o que, aun sin estar empadronadas, estén arraigadas en el municipio, que sean identificadas y propuestas por los Servicios Sociales de base y las entidades sociales del municipio, y/o que, sin estar en dicha situación, se encuentren en una situación de vulnerabilidad (personas mayores, mujeres…).
b) SARBIDE PROZESUA Jarraipen batzordeak ezarriko du Etxetik alojamendu zerbitzuan sartzeko protokoloa. Plaza egonkorrentzat udal gizarte zerbitzuetako preskripzio teknikoa beharko da. Urgentziazko plazek —hotzaren protokoloak barne— sarbide zuzena izan ahalko dute Udaltzaingoarekin koordinatuta, udal gizarte zerbitzuen aurre preskripziorik gabe.	b) PROCEDIMIENTO DE ACCESO La comisión de seguimiento establecerá el protocolo de acceso al servicio de alojamiento Etxetik. Para las plazas estables será necesaria la prescripción técnica de los servicios sociales municipales. Las plazas de urgencia, incluidas las del protocolo de frío, podrán tener acceso directo en coordinación con la Policía Local, sin la previa prescripción de los servicios sociales municipales.
2. ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK a) EGUTEGIA Zerbitzu honek modu iraunkorrean funtzionatu beharko du, eta urte osoan zabalduta egongo da. b) ORDUTEGIA Gaueko arreta zerbitzua, normalean, 20:30 etatik eta 10:00etara bitartean emango da. Ordutegi horretan zentroa irekita egon beharko da, eta dagokion pertsonala bertan, sarrera eta irteerak kontrolatuz. Ordutegi hori behin betiko edo aldi baterako aldatu ahal izango du, Udalak entitatearekin horretarako egokitasuna adostu ondoren.	2. CARACTERÍSTICAS DEL SERVICIO a) CALENDARIO Este servicio deberá funcionar de forma permanente y estará abierto durante todo el año. b) HORARIO El servicio de atención nocturna se prestará normalmente entre las 20:30 y las 10:00 horas. En este horario el centro deberá permanecer abierto y con su correspondiente personal, controlando las entradas y salidas. Dicho horario podrá ser modificado de forma definitiva o temporal, previo acuerdo del Ayuntamiento con la entidad sobre su idoneidad.

ESKUc87abf7c-8b1e-4856-b407-befde78fccaa

Jarraipen batzordean aztertuko dira proposamenak, eta Alkatetza dekretuz onartuko dira. c) KOKALEKUA Etxetik alojamendu eta gizarteratze zerbitzua Udalak programetarako jarriko dituen etxebizitzetan kokatuko da. Hala ere, beharrek hala eskatzen badute, Udalak hitzarmenaren iraupenean zehar zerbitzua emateko tokia aldatu ahalko du. Aldaketa proposamenak, jarraipen batzordean aztertuko dira, eta Alkatetza dekretuz onartuko dira. **BABESPEKO ETXEBIZITZAK** Babespeko etxebizitzek egonaldi labur edo ertaineko ostatu kolektiboa ematen die bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonei. Laguntza-intentsitate txikiko zerbitzua da, langileen etengabeko presentziarik gabe. Zerbitzu honetan dauden pertsonak autonomiaz funtzionatzen dute, konpartitutako etxebizitza eredu baten baitan; sarrera irteeren kontrolik ez dago, ezta eguneroko ekintzen gainbegiraketa jarrairik ere. Emaus Gizarte Fundazioko lantaldeak bete beharreko funtzioak zerbitzu honetan ondorengoak izango dira: - Etxebizitzen gainbegiraketa, langileen arreta zuzeneko ordutegian. - Kasuen balorazio eta orientazioan aholkularitza gizarte langileei eta ibilbideen transitoan gainbegiraketa eta jarraipena. - Koordinazioa banakako eskuharte soziohezitzailea garatu ahal izango duen beste enpresa edo entitateekin, kasuan kasu. ZERBITZUAREN HELBURUAK Zerbitzuaren helburu nagusia honako hau da: bazterkeria arriskuan dagoen pertsonari tresnak ematea eguneroko bizitzan hobeto moldatzeko gaitasunak eskuratzeko eta autonomia, gizarteratze eta garapen pertsonalean laguntzea, alojamendu zerbitzu bat eskainiz. Egoera bakoitzean identifikatutako gaitasun eta zailtasunak kontuan izanda, kasu bakoitzean arlo ezberdinetan landu beharreko helburu zehatzak zehaztuko dira. Helburu espezifikoak hauek dira:	Las propuestas serán analizadas en la comisión de seguimiento, y se aprobarán por decreto de Alcaldía. c) LOCALIZACIÓN El servicio de alojamiento e inserción Etxetik se ubicará en las viviendas que el Ayuntamiento habilitará para los programas. No obstante, si las necesidades lo requieren, el Ayuntamiento podrá modificar el lugar de prestación del servicio durante la duración del convenio. Las propuestas de modificaciones serán analizadas en la comisión de seguimiento, y se aprobarán por decreto de Alcaldía. **VIVIENDAS TUTELADAS** Las viviendas tuteladas proporcionan alojamiento colectivo de corta o media estancia a personas en situación o riesgo de exclusión. Se trata de un servicio de baja intensidad asistencial sin presencia permanente de personal. Las personas que están en este servicio funcionan con autonomía dentro de un modelo de vivienda compartido, no hay control de entradas y salidas ni supervisión continua de las actividades diarias. Las funciones a desarrollar por el equipo de Emaus Gizarte Fundazioa en este servicio serán: - Supervisión de las viviendas en horario de atención directa del personal. - Asesoramiento a las trabajadoras sociales municipales en la valoración y orientación de casos y supervisión y seguimiento en el tránsito de itinerarios. - Coordinación con otras empresas o entidades que, en su caso, puedan desarrollar una intervención socioeducativa individual. OBJETIVOS DEL SERVICIO El objetivo principal del servicio es proporcionar a la persona en riesgo de exclusión herramientas para la adquisición de habilidades que le permitan desenvolverse mejor en su vida cotidiana y favorecer su autonomía, integración social y desarrollo personal, ofreciendo un servicio de alojamiento. Teniendo en cuenta las capacidades y dificultades detectadas en cada situación, se definirán los objetivos específicos a trabajar en los diferentes ámbitos de cada caso. Objetivos específicos:

ESKUc87abf7c-8b1e-4856-b407-befde78fccaa

1. Trebetasun sozialak indartzea. 2. Etxeko antolaketa eta norberaren gaiekiko antolaketa hobetzea. 3. Ohitura osasuntsuak eskuratzea. 4. Osasun, kultura, aisialdi… eta bestelako gizarte baliabidetara hurbiltzeko autonomian laguntzea eta bultzatzea. 5. Zerbitzu okupazional, hezkuntzako edo lanekoetara hurbiltzea. 6. Baliabide ekonomiko propioak egoki administratzen gidatzea. 7. Inguru hurbilarekiko harreman positiboak bultzatzea. 8. Egoki ikusten diren bestelakoak, diagnostikotik abiatuta.	1. Fortalecimiento de habilidades sociales. 2. Mejora de la organización doméstica y de los asuntos personales. 3. Adopción de hábitos saludables. 4. Ayuda e impulso en la autonomía para acercarse a los recursos sanitarios, culturales, de ocio y otros. 5. Acercamiento a los recursos ocupacionales, educativos o laborales. 6. Guía para la adecuada administración de los recursos económicos propios. 7. Impulso de relaciones positivas respecto al entorno inmediato. 8. Otros que se consideren adecuados, partiendo del diagnóstico.
1. HARTZAILEAK	1. PERSONAS DESTINATARIAS
Bazterkeria-arrisku egoeran dauden pertsonak eta, salbuespenez, bazterkerian daudenak. Zerbitzu honen ondorioetarako, erreferentziazko profesionalaren balioespenaren arabera honako ezaugarri hauek dituzten pertsonak: a) Egonaldi laburreko edo ertaineko ostatu alternatiba bat behar dute, etxebizitza norbaitek gainbegiratzen duela, beren gizarteratze-prozesua bizigarritasun-baldintzetan egin ahal izateko ostatu-alternatibarik ez dutelako. b) Ez du nahikoa baliabide ekonomiko pertsonalik c) Ez du laguntza soziofamiliarrik.	Personas en situación de riesgo y exclusión, excepcionalmente. A los efectos de este servicio, aquellas personas que, de acuerdo con la valoración del profesional de referencia, reúnan las siguientes características: a) Necesitan una alternativa de alojamiento de corta o media estancia, con supervisión de la vivienda, porque no tienen alternativas de alojamiento para poder realizar su proceso de inserción en condiciones de habitabilidad. b) Recursos económicos personales insuficientes. c) Carece de apoyo sociofamiliar.
Bizikidetza-unitatea mantentzearren, salbuespenez eta egokitasuna balioesten bada, zerbitzura sartu ahal izango dira: - Eskatzailearekin bizi ohi den ezkontidea edo izatezko bikotekidea. - Eskatzailearen ardurapean dauden adingabeak (kasu horretan Haurtzaroko gizarte langilearekin elkarlanean egingo da arreta plana). - Eskatzailearen tutoretzapean dauden helduak, edo, tutoretzapean egon gabe ere, mendetasun-egoeran edo mendetasun-arriskuan daudenak eta eskatzailearekin bizi ohi direnak.	Excepcionalmente y con el fin de mantener la unidad convivencial, y siempre que se valore su adecuación, podrán acceder al servicio: - Cónyuge o pareja de hecho que conviva habitualmente con la persona solicitante. - Menores a cargo de la persona solicitante (en este caso el plan de atención se realizará en colaboración con la persona trabajadora social de Infancia). - Personas adultas que se encuentren bajo la tutela de la persona solicitante o que, no estando bajo tutela, se encuentren en situación de dependencia o riesgo de dependencia y convivan habitualmente con ella.
Kasu horietan guztietan, egokitasuna Udaleko Gizarte Zerbitzuek balioetsi beharko dute, eta zerbitzuko elkarbizitza bere osotasunean mantentzen dela ziurtatu beharko da.	En todos estos casos, la idoneidad deberá ser valorada por los Servicios Sociales municipales, debiendo asegurarse el mantenimiento de la totalidad de la convivencia en el servicio.

ESKUc87abf7c-8b1e-4856-b407-befde78fccaa

2. SARBIDE BALDINTZAK	2. REQUISITOS DE ACCESO
– Gizarte bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonak (gizarte bazterkeria neurtzeko tresnaren arabera) edo bazterkerian daudenak eta gaueko harrera zerbitzutik proposatu eta bideratutakoak. – Adinez nagusiak direnak. – Zarautzen erroldatuak, gutxienez 6 hilabeteko antzinatasunarekin EAEn. – Adimen gaixotasuna izan dezaketen pertsonen kasuan, Osakidetzan artatuak izatea eta klinikoki egonkor dauden pertsonak. – Gizarteratzeko eta laneratzeko edo arlo okupazionaleko ibilbide bat egiteko konpromisoa hartzea; ibilbide hori zerbitzu hau erabiltzen duen bitartean egin beharko du. – Osasun laguntza espezializatua eta/edo iraunkorra behar ez izatea, horrelako zerbitzu batean egoteko. – Jokabide-nahasterik ez izatea eta zerbitzuaren funtzionamendua edo zerbitzuko bizikidetza normala larriki nahas dezakeen edota beretzat, beste erabiltzaile batzuentzat edo profesionalentzat arriskutsua izan daitekeen portaerarik ez agertzea. – Gaixotasun infekzioso eta kutsakor bat eta/edo gaixotasun mentalen bat izanez gero, dagokion tratamendua hartzea. – Gizarte langile profesional erreferentearen irizpide teknikoa kontuan izanda, programa honen onuradun izan daitezkeenak.	– Personas en riesgo de exclusión social (según el instrumento de medición de la exclusión social) o en situación de exclusión social propuestas y derivadas del servicio de alojamiento nocturno municipal. – Personas mayores de edad. – Empadronadas en Zarautz con una antigüedad mínima de 6 meses en la CAPV. – En el caso de personas con enfermedad mental, que estén atendidas en Osakidetza y clínicamente estables. – Adquirir el compromiso de realizar un itinerario de inserción sociolaboral u ocupacional que deberá llevar a cabo durante el uso de este servicio. – No necesitar asistencia sanitaria especializada y/o permanente para permanecer en un servicio de estas características. – No padecer trastornos de conducta ni comportamientos que perturben gravemente el funcionamiento del servicio o la normal convivencia en el mismo, o que supongan un riesgo para sí mismo, para otras personas usuarias o para los profesionales. – En caso de enfermedad infecciosa, contagiosa y/o enfermedad mental, tomar el tratamiento prescrito. – Todas aquellas personas que a criterio técnico de la persona trabajadora social profesional de referencia puedan ser beneficiarias de este programa.
3. ESKAINIKO DIREN PRESTAZIOAK	3. PRESTACIONES A OFRECER
– Alojamendua: gela bakoitzak giltza izango du. – Jarraipen-balioespena: jarraipena eta balioespena. – Gainbegiratzea – Laguntza soziala: kasuan kasu, pertsona bakoitzaren diagnosiaren araberako esku-hartze soziohezitzailea jarrita. – Etxebizitzako garbiketa eta jatorduak bere gain hartuko dituzte erabiltzaileek, denon artean antolatuta.	– Alojamiento: cada habitación dispondrá de su llave. – Valoración de seguimiento: seguimiento y valoración. – Supervisión – Acompañamiento social: mediante una intervención socioeducativa acorde al diagnóstico de cada persona. – Las personas usuarias se responsabilizarán de la limpieza de la vivienda y de las comidas, organizadas de forma conjunta.
4. JARDUERA PROTOKOLOA	4. PROTOCOLO DE ACTUACIÓN
a) Gizarte Zerbitzuetako profesionalak izango dira lehen arreta eta diagnostikoa eta	a) Las y los profesionales de los Servicios Sociales serán los responsables de la atención

ESKUc87abf7c-8b1e-4856-b407-befde78fccaa

balorazioa egiteko ardura izango dutenak. Hitzarmenari lotutako Emaús fundazioko gizarte langileak ere parte hartuko du, horrela baloratzen den kasuetan.	inicial y de su diagnóstico y valoración. También participará el/la trabajador/a social de la Fundación Emaús vinculada al Convenio, en los casos en que así se valore.
b) Babespeko etxebizitzan sartzea egokia dela balioztatzen bada, gizarte langileak erabiltzaileari horrela proposatuko dio. Erabiltzaileak onartzen badu, elkarrekin arreta pertsonalizatutako plana osatuko da.	b) Si se valora la idoneidad del acceso a la vivienda tutelada, el/la trabajador/a social le trasladará la propuesta a la persona. Si ésta la acepta, se elaborará conjuntamente un plan de atención personalizado.
c) Proposamena onartuta, Babespeko Etxebizitzarako sarbidea antolatuko da. Erabiltzaileak bertako arauak onartu beharko ditu, eta egonaldirako kontratua sinatuko du; kontratuan bere egonaldiaren zehaztasunak jasoko dira.	c) Aprobada la propuesta, se organizará el acceso a la Vivienda Tutelada. El/La usuario/a deberá aceptar las normas del mismo y firmar el contrato de estancia, en el que se harán constar las especificaciones de su estancia.
d) Arreta plan bakoitzaren arabera, esku-hartzea gizarte langile erreferentearekin eta Emaúseko profesionalekin burutuko da, eta beharrezkoa bada, esku-hartze soziohezitzailea jarrita, bisitak eta landu beharreko helburuak zehaztuz.	d) En función de cada plan de atención, la intervención se llevará a cabo con el/la trabajador/a social de referencia y con los/las profesionales de Emaús y, en su caso, activando el programa de intervención socioeducativa, las visitas y los objetivos a trabajar.
e) Orokorrean 6 hilabeteko egonaldiak eta esku-hartzeak aurreikusiko dira. Epe hori igaro ondoren, eta lortu diren ebaluazio-txostenekin erabakiko da egonaldiaren eta esku-hartzearen luzapena, hala behar bada.	e) Con carácter general se preverán estancias e intervenciones de 6 meses. Transcurrido dicho plazo, y con los informes de evaluación obtenidos, se acordará, en su caso, la prórroga de la estancia y de la intervención.
f) Erreferentziazko gizarte langileak eta esku hartzen ari diren profesionalek koordinazio-bilerak egingo dituzte, kasuaren eboluzioa gainbegiratzeko eta helburuak egokitzeko.	f) El/La trabajador/a social de referencia y las y los profesionales implicados mantendrán reuniones de coordinación para supervisar la evolución del caso y ajustar los objetivos.

ESKUc87abf7c-8b1e-4856-b407-befde78fccaa

II ERANSKINA **Bitartekoak eta antolakuntza** Etxetik alojamendu eta gizarteratze programa instalazio hauetan burutuko da:	**ANEXO II** **Medios y organización** El programa de alojamiento e inclusión Etxetik se llevará a cabo en las siguientes instalaciones:

Herria / Población	Zentroa/ Centro	Helburua/Objeto
Zarautz	**Zarauzko Udalaren jabetzako etxebizitzak Zuberoa kalean** Viviendas de propiedad del Ayuntamiento de Zarautz en Zuberoa kalea	Gaueko harrera zerbitzua
Zarautz	**Zarauzko Udalaren jabetzako etxebizitzak Zuberoa kalean** Viviendas de propiedad del Ayuntamiento de Zarautz en Zuberoa kalea	Babespeko etxebizitzak

UDALAK JARRITAKO BALIABIDEAK - Etxebizitzak. Gaueko harrerarako etxebizitzak. Babespeko etxebizitzak - Sukaldea/oficcea, egongela eta logelak - Oheak: somierra eta koltxoia. Ohe-arropa (hasierako horniketa) - Armairu txikiak - Bideo-atezaina - Etxetresna elektrikoak (mikrouhina, telebista, garbigailua, lehorgailua). Era berean, Udala arduratuko da elementu horiek mantendu, egokitu edo birjartzeaz, berokuntza, leihoak, ateak eta elektrizitate eta iturgintza sistema barne. - Mantentze-gastuak: Udalaren kargura izango dira komunitateko, argindar, gas eta ur hornidurako eta zabor gastuak.	RECURSOS APORTADOS POR EL AYUNTAMIENTO - Viviendas. Viviendas de acogida nocturna. Viviendas tuteladas - Cocina/office, salón y dormitorios - Camas: somier y colchón. Ropa de cama (suministro inicial) - Taquillas - Video portero - Electrodomésticos (microondas, televisión, lavadora, secadora). Asimismo, el Ayuntamiento se encargará del mantenimiento, acondicionamiento y reposición de dichos elementos, incluidos calefacción, ventanas, puertas y sistema eléctrico y fontanería. - Gastos de mantenimiento: Los gastos de comunidad, suministro de electricidad, gas y agua y de residuos correrán a cargo del Ayuntamiento.
ENTITATEAREN BETEBEHARRAK ETA BALIABIDEAK - Zerbitzuari lotutako prestazioak eskaintzea. - Gaueko alojamendu zerbitzua egunero irekita eta funtzionamenduan izatea, urteko egun guztietan. - Zentroa eta bertako espazioak egoki ireki eta ixtea. - Erabiltzaileei harrera egitea. - Erabiltzaileei zentroaren araudiaz informatzea.	OBLIGACIONES Y RECURSOS DE LA ENTIDAD - Ofrecer las prestaciones vinculadas al servicio. - Mantener el servicio de alojamiento nocturno abierto y en funcionamiento durante todos los días del año. - Abrir y cerrar adecuadamente el centro y sus espacios. - Acoger a las personas usuarias. - Informar a las personas usuarias sobre la normativa del centro.

ESKUc87abf7c-8b1e-4856-b407-befde78fccaa

- Zerbitzuko boluntarioak, egonez gero, koordinatu eta ikuskatzea. - Plaza egonkorretan arreta-planak diseinatu eta aurrera eramatea. - Zentroa kokatuta dagoen eraikineko ezkaratza zaintzea, bai eta harreman ingurunea zaintzea ere (harremanak bizilagunekin etab.). - Gaueko harrera zerbitzuko espazioak garbitzea. - Mantentze-lan txikiak burutzea; halakotzat hartzen dira profesionalek egin behar ez dituztenak. - Afariak eta gosariak. - Udal gizarte zerbitzuekin, behar diren beste departamentu batzuekin (Udaltzaingoa), beste zerbitzu batzuekin (osasun sistema…) eta gizarte elkarteekin koordinatzea.	- Coordinar e inspeccionar los voluntarios del centro, en su caso. - En las plazas estables, diseñar y desarrollar los planes de atención. - Cuidar el portal en el que se ubica el centro, así como el entorno relacional (relaciones con el vecindario, etc.). - Limpiar los espacios del servicio de acogida nocturna. - Realizar pequeñas tareas de mantenimiento, entendiendo como tales aquellas que no las tenga que realizar un/a profesional. - Cenas y desayunos. - Coordinarse con los servicios sociales del Ayuntamiento, con otros departamentos necesarios (Policía Local), otros servicios (sistema de salud…) y otras entidades sociales.
Era berean, entitateak ondorengo baliabideak hartuko ditu bere gain: - Baxera, mahai-tresnak eta ontziak hornitzea eta lehengoratzea (hasierako hornidura Udalak egingo badu ere). - Burukoak eta oheko arropa (hala nola, izarak, mantak, burukoen zorroa eta koltxoi-zorroa) hornitu eta lehengoratzea. Lehen horniketa Udalak egingo du. - Higiene pertsonaleko produktuak ematea, hala nola xaboia, bizarra mozteko tresnak, eskuoihalak eta konpresak. - Erabiltzaileei barruko arropa ematea. - Langileek behar duten material informatikoa eta telefonia mugikorreko gastuak.	Asimismo, la entidad se encargará de los siguientes recursos: - Suministro y restitución de vajilla, cubiertos y menaje (aunque el suministro inicial lo hará el Ayuntamiento). - Suministro y restitución de almohadas y de ropa de cama (por ejemplo, sábanas, mantas, fundas de almohada y fundas de colchón). El primer suministro lo realizará el Ayuntamiento. - Suministrar productos de higiene personal como jabón, utensilios de afeitar, toallas y compresas. - Suministrar ropa interior a las personas usuarias. - Material informático necesario para el personal empleado y gastos de telefonía móvil.
ZERBITZUA EMATEKO LANGILEAK/ LANTALDE PROFESIONALA a) KOORDINATZAILEA Entitateak koordinatzaile bat izendatu beharko du, eta harremanetarako e-mail eta mugikor operatibo bat, astelehenetik ostiralera 8:00etatik 14:00etara, erabilgarri egongo dena, zerbitzuari lotutako urgentzia edo bestelakoak atenditzeko. Koordinatzaileak graduko edo erdi-mailako edo goi-mailako prestakuntza izan beharko du esku-hartze sozialaren arloko diziplinaren batean: gizarte-hezkuntza, gizarte-lana, psikologia,	PERSONAL PARA LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO /EQUIPO PROFESIONAL a) COORDINADOR/A La entidad deberá nombrar un/a coordinador/a, así como un e-mail y móvil operativo que estará disponible de lunes a viernes, de 8:00 a 14:00, para atender urgencias o similares relacionados con el servicio. La persona coordinadora deberá poseer una formación de grado o grado medio o superior en alguna de las disciplinas del ámbito de la intervención social: educación social, trabajo

ESKUc87abf7c-8b1e-4856-b407-befde78fccaa

antropologia, pedagogia edo esku-hartze sozialaren arloko beste titulazio bat. Udalarekin koordinatzeko lana egingo du, eta eskatzen zaizkion txosten guztiak egin beharko ditu, bai eta eskatzen zaion koordinazio bileretan parte hartu ere. Koordinatzailea izango da Zarauzko Udalarekin komunikatzeko erreferentea, eta hari egokituko zaio gainerako langileei laneko agindu eta jarraibideak zuzenean emateko ahalmena.	social, psicología, antropología, pedagogía u otra titulación en el ámbito de la intervención social. Ejercerá las funciones de coordinación con el Ayuntamiento y deberá elaborar cuantos informes le sean solicitados, así como participar en las reuniones de coordinación en las que se requiera su presencia. El/la coordinador/a será el/la referente de comunicación con el Ayuntamiento de Zarautz, y le corresponderá la facultad de dar directamente órdenes e instrucciones de trabajo al resto del personal.
b) ARRETA ZUZENEKO PERTSONALA: GUTXIENEKO BALIABIDEAK	b) PERSONAL DE ATENCIÓN DIRECTA: RECURSOS MÍNIMOS
Zentroan, gutxienez, ondorengo maila eta titulazioko arreta zuzeneko pertsonala egongo da:	El centro contará, como mínimo, con personal de atención directa del siguiente nivel y titulación:
- Urteko egun guztietan arratsaldeko 20:00etatik goizeko 10:00etara (ohikotasunez): **Esku Hartze Sozialaren Arloko, 3. taldeko profesionala**, gizarte integratzailea, edo esku-hartze sozialaren arloko beste titulazioren bat duena. Ondorengo funtzioak izango ditu: - Erabiltzaileen harrera. - Jarduera soziohezitzaileak bideratzea (etxebizitzaren antolaketari dagozkionak barne). - Erabiltzaileekin arlo psikosozialen esku-hartzea (estimulazioa, errehabilitazioa eta motibazioa lantzekoa). - Erabiltzaileen arteko gatazka-egoeretan bitartekari izatea. - Elkarbizitza-arauak errespetatzen direla gainbegiratu, eta berariazko laguntza eskatu urgentziazko kasuetan. - Kasuan kasu, banakako arreta planean jarritako helburuak lantzea.	- Todos los días del año, desde las 20:00 hasta las 10:00 (habitualmente): **Profesional del grupo 3 del Área de Intervención Social,** integrador/a social u otra titulación en el ámbito de la intervención social. Desempeñará las siguientes funciones: - Atender a las personas usuarias. - Dirigir las actividades socioeducativas (incluidas las relativas a la organización de la vivienda). - Intervención psicosocial (estimulación, rehabilitación y motivación) con las personas usuarias. - Mediar en situaciones de conflicto entre usuarios/as. - Supervisar el respeto de las normas de convivencia y solicitar ayuda específica en casos de urgencia. - Elaboración, en su caso, de los objetivos planteados en el plan individualizado de atención.
Goizeko 8:30etik 12:00etara, astelehenetik ostiralera (edo garaiaren edo beharren arabera ezarritako ordutegian), **Gizarte Langilea (2. Taldea).** Ondorengo funtzioak izango ditu:	De 8:30 a 12:00 de la mañana, de lunes a viernes (o en horario establecido en función de la época o necesidades), **Trabajador/a Social (Grupo 2).** Desempeñará las siguientes funciones:
- Planifikazio lanak, diagnostiko eta arreta plan pertsonalizatuaren prestakuntza, segimendua eta ebaluazioa kasuan kasu, oinarrizko gizarte zerbitzuekin elkarlanean. Behar diren gizarte txostenak.	- Tareas de planificación, elaboración, seguimiento y evaluación, en su caso, del diagnóstico y plan personalizado de atención, en colaboración con los servicios sociales de base. Informes sociales necesarios.

ESKUc87abf7c-8b1e-4856-b407-befde78fccaa

- Erabiltzaileei jakinaraztea zer gizarte baliabide dauden erabilgarri eta nola eskura daitezkeen. - Beste agenteekin koordinazio-lanak. - Boluntarioen antolaketa, koordinazio eta gidaritza lanak. - Gizarte Zerbitzuetako erreferentziazko gizarte langileekin batera, gizarte bazterkeria egoeren balioespenak egitea. - Bestalde, Etxetik alojamendu eta gizarteratze zerbitzua bazterkeria egoeran dauden pertsonen arretarako dauden edo/eta sortuko diren beste zerbitzu batzuekin koordinatu beharko da, eta lankidetzan jardun, elkarren arteko kolaborazioa bultzatuz, hala nola, zerbitzu horiek ematen dituzten elkarte/enpresa, profesional edo boluntarioekin, Zarauzko Udalak Foru Aldundiarekin bazterkeria eta arrisku egoeran dauden pertsonen gizarteratzea sustatu eta arreta emateko bultzatutako proiektu integratuaren baitan.	- Informar a las personas usuarias de los recursos sociales disponibles y de las formas de acceso. - Coordinación con otros agentes. - Funciones de organización, coordinación y liderazgo del voluntariado. - Realizar, junto con las/los trabajadoras/es sociales de referencia de los Servicios Sociales, las valoraciones de las situaciones de exclusión social. - Por otro lado, el servicio de alojamiento e inclusión Etxetik deberá coordinarse y colaborar con otros servicios existentes y/o que se creen para la atención a personas en situación de exclusión, impulsando la colaboración entre ellos, tales como asociaciones/empresas, profesionales o voluntarios/as que prestan estos servicios, en el marco del proyecto integrado de promoción y atención a la inclusión social de personas en situación de exclusión o de riesgo impulsado por el Ayuntamiento de Zarautz junto con la Diputación Foral.
c) ANTOLAMENDUA ETA FUNTZIONAMENDUA Udalaren eta entitatearen arteko harremanak hitzarmenaren udal arduradunaren eta entitateak horretarako izendatutako koordinatzailearen bitartez egingo dira. Plaza egonkorreko kasuen jarraipena dela eta, erreferentziazko profesionalen arteko koordinazioak burutuko dira. Entitateak bere zuzendaritza eta kudeaketa propioa eskainiko dio hitzarmenari, eta haren ardura izango dira zerbitzuaren antolaketa, egiten dituen lanen kalitate teknikoa eta emandako prestazioak eta zerbitzuak; gainera, bere gain hartuko du enpresa-arriskua. Zerbitzuan ari diren langileen zuzendaritza eta funtzionamendua entitatearen eskumen esklusiboa da. Udalak ez du inolako zuzendaritza ahalmenik izango entitateko langileen gainean: ez du izango langileak hautatzeko, oporraldiak ezartzeko eta langileen baimenak eta ordutegiak zehazteko ahalmenik.	c) ORGANIZACIÓN Y FUNCIONAMIENTO Las relaciones entre el Ayuntamiento y la entidad se realizarán a través de la persona responsable municipal del convenio y de la persona coordinadora designada al efecto por la entidad. Respecto al seguimiento de los casos de plaza estable, se llevarán a cabo coordinaciones entre profesionales de referencia. La entidad ofrecerá su dirección y gestión propia al convenio, siendo responsable de la organización del servicio, de la calidad técnica de los trabajos que desarrolle y de las prestaciones y servicios realizados, asumiendo el riesgo empresarial. La dirección y funcionamiento del personal al servicio es competencia exclusiva de la entidad. El Ayuntamiento no tendrá facultad alguna de dirección sobre el personal de la entidad, por lo que no podrá elegir personal, ni establecer periodos vacacionales ni determinar los permisos y horarios del personal.

ESKUc87abf7c-8b1e-4856-b407-befde78fccaa

III ERANSKINA **Erregimen ekonomikoa**	ANEXO III **Régimen económico**
Kontzeptua Gastu finkoak: hilabete osoko 18.000 € Gastu aldakorrak: menua (gosaria eta afaria) 6,00 € okupatutako plaza/eguneko. Udalaren gehieneko ekarpena 2023 urterako: 220.000 € Udalaren gehieneko ekarpena 2024 urterako: 245.000 €	Concepto Gastos fijos: mes completo 18.000 € Gastos variables: menú (desayuno y cena) 6.00 € plaza ocupada/día. Aportación máxima del Ayuntamiento para el año 2023: 220.000 € Aportación máxima del Ayuntamiento para el año 2024: 245.000 €

ESKUc87abf7c-8b1e-4856-b407-befde78fccaa

IV ERANSKINA DOKUMENTAZIOA	ANEXO IV DOCUMENTACIÓN
Gizarte Zerbitzuetako Departamentua izango da zerbitzuaren jarraipena eta kontrola egingo duena. Horretarako, entitateak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:	El Departamento de Servicios sociales será el encargado de realizar el seguimiento y control de la gestión del servicio. Para ello, la entidad deberá presentar:
Gaueko harrera zerbitzuaren eta Babespeko etxebizitzen inguruko informazioa, egunero, e-mail bidez: altak, bajak, intzidentziak eta bestelakoak.	Información diaria a través de mail relativa al Servicio de acogida nocturna e Viviendas tuteladas: altas, bajas, incidencias u otros.
Egonaldi luzeko pertsonei buruzko esku-hartze eta jarraipen-planak. Behar diren gizarte txostenak.	Planes de intervención y seguimiento relativos a las personas en estancias prolongadas. Informes sociales necesarios.
Urteko memoria	Memoria anual
Diru-sarreren eta gastuen justifikazioa	Justificación de ingresos y gastos

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUc87abf7c-8b1e-4856-b407-befde78fccaa**
Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07910***
Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07910***